# Eskolen Arteko Foroaren Akta
# IURRETA eta ZALDIBAR

Data: 2019.05.20 Ordua: 9:30 Tokia: Iurretako Olaburu Frontoian

## Partaideak

Zaldibarko ikastetxeak: Zaldibar HLHI

Iurretako ikastetxeak: Maiztegi Eskola eta Juan Orobiogoitia institutua

Ortzadarreko teknikariak: Igoa Gorostola eta Oihane Aranguren

## Helburuak

→ Ikastetxe desberdinetako ikasleek euren artean ezagutzeko eta lan egiteko aukera izatea.

→ Lan gaiaren inguruan udal kudeaketa hobetzeko Udalakoei egingo dizkieten proposamenak lehenetsi eta adostea.

→ Gure elikadura zirkularragoa izateko, ikasleek, hartzen dituzten konpromisoak adostea.

## Gai-zerrenda

| | |
|---|---|
| 9:25 | Partaideen harrera |
| 9:35 | Aurkezpen dinamika |
| 9:45 | Taldekideen artean elkar ezagutzeko dinamika |
| 9:50 | Konpromisoak adosteko lan dinamika talde txikietan |
| 10:00 | Adostutako konpromisoak amankomunean jartzea |
| 10:15 | Proposamenak adosteko lan dinamika talde txikietan |
| 10:25 | Adostutako proposamenak amankomunean jartzea |
| 10:40 | Ikasleen ebaluaketa |
| 11:45 | Udal foroaren antolakuntza |
| 11:00 | Bukaera |

2019ko maiatzaren 20an, Iurretako Olaburu Frontoian, 2018-2019 ikasturteko Iurreta eta Zaldibarko Eskolen Arteko Foroa ospatu da.

Topaketa honen helburu nagusia, Udal Foroan aurkeztu beharreko konpromiso eta proposamenak adostea da baina horretaz gain, Eskolako Agenda 21eko parte-hartzaileek elkar ezagutzeko eta haien artean esperientziak trukatzeko aukera izan dute.

Lehenik eta behin identifikazio txartelak ipini eta saioaren aurkezpena burutu da. Jarraian, ikasleek elkarren artean ezagutzeko dinamika bat egin da, non ikastetxeka nahastu diren eta ikasle bakoitzak bere burua aurkeztu duen, lehenengo bikotean eta gero talde handian. Horretaz gain, bikote bakoitzak “ingurumenarekin” zerikusia duen hitz bat adostu behar izan du.

Jarraian, talde dinamika baten bitartez, ikasleek “elikadura zirkularraren” inguruan hartzen dituzten konpromisoak adostu dituzte. Hasieran talde txikietan bildu eta bi konpromiso aukeratu dituzte ondoren talde handian amankomunean jartzeko.

Behin konpromisoak adostuta, udalari helaraziko dizkioten proposamenak erabaki dituzte, lehenengo eta behin talde txikietan bi proposamen aukeratuz eta ondoren amankomunean jarriz.

Amaitzeko, foroaren balorazioa egin dute eta azkenik udal foroa aurrera nola eramango den antolatu da.

## Argazkiak

- ✓ Argazkiak

## Ebaluazioak

- ✓ Ikasleen balorazioak

## Materiala

- ✓ Lan dokumentua